

Irene eta Aitor. Aitor eta Irene

Irene eta Aitor. Aitor eta Irene.

Elkar ikusi zuten une berean maitemina jo zituen.

Hitz egiten hasteaz bat ohartu ziren elkarren osagarri zirela, bata bestearen laranja erdi, bestea bataren unibertso oso.

Eta lehenengo musua eman bezain laster, ezpainen bat egin orduko,

errimazerontek agertu ziren lasterka beroan,

otsomatopeiak ilargiari uluka,

tximinonimoak adarrik adar adarjole,

sinalefanteak tronpaz elkar tronpatzen,

metafokak ero-ero txaloka,

galeperifraziak basoan hegaka,

paralorismoak kantari eta kontari,

jirafantasiak lepoak korapilatzen,

antitesugeak sigi-saga elkarri segika,

balegoriak itsasoan igeri, ugari.

Irene zoologoa zen.

Aitor, literatura irakaslea.